

## Euskara nola saldu udaletik

Egun on guztioi. Eta eskerrik asko antolatzaileei egun honetarako nirekin gogoratzeagatik, ekarpenen bat egin dezakedala pentsatuta.

“Euskara nola saldu” jarri dut izenburuan. Uste dudalako euskaldun guztiok egin behar genukeela euskara saltzeko, zabaltzeko, kutsatzeko ahalegina; eta zer esanik ez zuek, euskara biziberritzeko lana duzuenok.

Eta “udaletik” jarri dut izenburuan, “euskara nola saldu udaletik”, pentsatzen nuelako -agian oker-udal euskara teknikariak izango zinetela gaur hemen bildutako guztiak edo gehien-gehienak behintzat. Ez dakit asmatu ote dudan.

Edozein kasutan, esan nahi dizuet hurrengo hilabetean beteko direla justu hiru urte [EBPNren Komunikaziorako Gida](#) prestatu genuela zuentzat. Han aholku praktikoak jarri genizkizuen eskura, eta gomendatuko nizueke, eguneroko lanerako, Komunikaziorako Gida hura berrikusi eta kontuan hartzea.

Gaur, gida praktiko haren osagarri gisa, irakurketa orokorrago bat egin nahi dizuet. Ordu erdian komunikazioan aditu nekez bihurtuko zaituztedanez, gutxienez ikuspegir orokor bat hartu dezazuen.



Hasteko, orain gutxi irakurri nuen irudi edo **metafora bat** ekarri nahi nuke hona.

Bi modu ezberdin eta kontrajarri omen daude asfaltoa hausteko. Lehena, tratatatata, **taladro moduko makina** handi horiekin.



Eta bestea, atzeko kaleko **loreen modura**, modu askoz isilagoan, ia oharkabean. Guztiok ikusi ditugu bide bazterrean loreak, asfaltoa zartatuz pixkanaka.

Gehitxo litzateke esatea loreak garela euskaldunak, eta asfaltoa direla erdaldun elebakarrak... Baina irudiak balio digu nabarmentzeko inglesaren eta gazteleraren uniformizazioa ezingo dugula kolpetik, bat-batean, indarrez hautsi:

**Mailuarekin** oso gogor jota ere, mailu asko erabilia ere, nekez hautsiko dugu asfalto zatitxo bat.

**Loreek aldiz**, pixkanaka, pazientziarekin, bizinahiari eusten badiote, azkenean zirrikituak irekitzen dituzte asfaltoan.



Horretara nator ni gaur: zuek animatzera, eta zuen bulego eta herrietako lur emankorretan hazi batzuk jartzen saiatzera.



Euskaldunoi askotan, euskara saldu nahi dugunean, **erraietatik** ateratzen zaizkigu gauzak. "Euskal Herrian euskaraz!", "euskaraz eta kitto!"... Harridura markekin, marruka bezala agertzen gara maiz.

Estrategia saltzaileak pentsatu eta garatzeko beharrezkoa den hoztasuna galdu ohi dugu, eraginkortasunaren kaltetan.

Eta horrez gainera, sarritan **negarrez eta kexaka** agertu ohi gara: salatuz hizkuntza eskubideak urratzen zaigigula; oso gaizki dagoela euskara administrazioan, osakidetzan, enpresatan, justizia alorrean... Euskara ez dugu batere erakargarri egiten horrela.

Salatu behar ditugu halakoak, jakina. Inork ez dezala pentsa halako egoeren aurrean isilik egon behar dugula defendatzen dudanik.

Baina kontuan izan behar dugu inor ez dela igotzen hondoratzen doan ontzi batera.

Mezu ezkorrak orekatzeko, **baikorrak asko behar** ditugu zabaldu. Eta arazoak arazo eta haserrearekin haserre, irribartsu eta pozik ere ikusi behar gaituzte, itsasontzira igoko badira.



Euskara biziberritzeko, mailuak ere beharko dira ziurrenik... **Epaileen eskutan**, esaterako... Lege babes zabalagoa behar du euskarak, EAEn eta batez ere EAE ez diren euskal lurraldeetan. Ados. Baina zuek egunero, lanean, legeak aldatuko balituzkete ere, nola egingo zenukete euskara planak gauzatzeko?... Edo hobeto esanda, zer egingo zenukete udalean, foru aldundian, kalean jendeak euskara ikasi eta, batez ere, erabil dezan lortzeko?... Horretarako mailuek ez digute askorako balio.



**Gizonezkoek** joera handiagoa omen dugu, izatez, indarra baliatzeko, gainontzekoak behartzen saiatzeko, mailuari eragiteko. **Emakumezkoek**, berriz, hitza omen dute lanabes nagusi, elkarrizketa, seduzioa. Biak beharko ditu euskarak, ziurrenik: mailuak eta loreak. Baina nire ustez, bigarrenengo premian gara batez ere euskara zabaltzeko ahaleginetan ari garenok. Gure barruko alde femeninoena da euskara saltzeko atera behar duguna.



### **Nola jokatu ohi dugu zerbait saltzeko dugunean?...**

Nola jokatu ohi dute emakumeek zerbait saldu nahi dutenean?... Bikotekideari plan bat saldu nahi diotenean adibidez?...




Utzidazue modu politagoan galdetzen: nola oparitzen da lore bat?

**Maitasunez** beti... Kursia dirudi, hala esanda, baina zeinek ukatuko dit maitasunaren indar kutsakorra...


Ez naiz zuei mirakulurik eskatzen ari. Guztiok gara **seduzitzaile**. Guztiok dakigu saltzen. Guztiok saiatzen gara egunero-egunero aldamenen ditugunei mezuak, ideiak, planak, denetariko "produktuak" saltzen; eta esperientzia handia dugu guztiok, beraz, ez dakit loreak oparitzen, baina bai jendea konbentzitzeko ahaleginak egiten.

Behin, gaurkoaren antzeko beste hitzaldi batean, eskola publikoko irakasleei esan nien

"Euskararen aldeko brigadista seduzitzaileak".

<p>euskara gizarteratzeko ezarrita dugun saltzaile-sare zabala osatzen dutela. Edo bestela, modu politago batean esanda: <b>euskararen aldeko brigadista seduzitzaileak direla irakasleak.</b></p>	
<p>Zuetako bakoitzak ere euskararen aldeko brigadista limurtzaile gisa ikusiko balu bere burua, hori baizik lortuko ez balitz ere, urrats kualitatibo ikaragarria egingo genuke euskara saltzeko egiten dugun ahalegin eskergan.</p> <p>Nola jokatu ohi dugu norbait seduzitu nahi dugunean? Nola jokutzen dugu <b>aurreneko zitan</b> adibidez? Edo hobeto esanda, nola jokutzen genuen aurreneko zita haietan?... Gogoratzen al zarete?... ;-)</p> <p><b>Gure alde onena erakutsiz. (Publizitateak ez du gezurrik esaten...).</b></p>	
<p>Umore onez. (<i>Haserre, kexaka, marruka ez dugu konbentzitzen</i>).</p>	
<p>Esan beharrekoak aldez aurretik ondo pentsatuz. (<i>Inprobisazioari mugak</i>).</p>	

<p>Zeharka jokatu. (<i>Ez esan zuzenean bestearengandik nahi duguna</i>).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Gure alde onena erakutsiz.</li> <li>— Umore onez.</li> <li>— Esan beharrekoak aldez aurretik ondo pentsatuz.</li> <li>— Zeharka jokatu.</li> </ul>
<p>Aurrean daukaguna entzunez. (<i>Uneoro erne eta adi egonez</i>).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Gure alde onena erakutsiz.</li> <li>— Umore onez.</li> <li>— Esan beharrekoak aldez aurretik ondo pentsatuz.</li> <li>— Zeharka jokatu.</li> <li>— Aurrean daukaguna entzunaz.</li> </ul>
<p>Irudia zainduz. (<i>Dotore, eder senti gaitezen, erakartzeko hobe</i>).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Gure alde onena erakutsiz.</li> <li>— Umore onez.</li> <li>— Esan beharrekoak aldez aurretik ondo pentsatuz.</li> <li>— Zeharka jokatu.</li> <li>— Aurrean daukaguna entzunaz.</li> <li>— Irudia zainduz.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Gure alde onena erakutsiz.</li> <li>— Umore onez.</li> <li>— Esan beharrekoak aldez aurretik ondo pentsatuz.</li> <li>— Zeharka jokatzuz.</li> <li>— Aurrean daukaguna entzunaz.</li> <li>— Irudia zainduz.</li> <li>— Uneoro erne eta adi egonez.</li> </ul>
<p>Malgutasunez jokatzuz. (<i>Urrats txikiak emanez, epeak jarriz, ...</i>).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Gure alde onena erakutsiz.</li> <li>— Umore onez.</li> <li>— Esan beharrekoak aldez aurretik ondo pentsatuz.</li> <li>— Zeharka jokatzuz.</li> <li>— Aurrean daukaguna entzunaz.</li> <li>— Irudia zainduz.</li> <li>— Uneoro erne eta adi egonez.</li> <li>— Malgutasunez jokatzuz.</li> <li>— ...</li> </ul>
<p>Baten bat seduzitu nahi dugunean, ez dugu agindurik ematen, ez dugu marrurik egiten, ez dugu ebanjelizatzen...</p> <p>Jarrera aldaketa hori funtsezkoa iruditzen zait. <u>Zuek animatzera bakarrik ez</u> naiz etorri, ordea. Seduzitzaileak izan behar duzue, bale. Baina eman beharko dizuet pistaren bat saltzaile on izaten asma dezazuen, ezta?</p> <p>Nola jokatzuzen dugu komunikazioa <b>profesionalki</b> lantzen dugunok? Zer egiten dugu publizitate agentzietan komunikazio estrategia eraginkorrak diseinatzeko? Luze joko luke ondo eta sakon azaltzea, baina gera zaitezte 3 punturekin.</p>	

Hiru hazi botako ditut hemen:

1) **Xede-taldea.** *Target* ingelesez, *público objetivo* gazteleraz.

Ondo ezagutu behar da aurren-aurrena.



Nori ari gatzaizkio zuzentzen?

Nolakoak dira seduzitu behar ditugun herritarrak? Zer pentsatzen dute euskararen inguruan? (Edo eskaini nahi diegun pailazo jaialdi, erakusketa, zinema emanaldi...?).

**Ahaztu ditzagun antipatikoak. Saia gaitezen sinpatikoak seduzitzen**



2) Funtsezkoa da jakitea **zer irabazi**, zer etekin eskainiko diogun konbentzitu nahi dugun pertsonari.

Publizitatearen eremuan, komunikazio estrategia bat diseinatzerako garaian, asko nekatzen dugu burua erabakitzekeo zer etekin, produktuak eskaintzen duen zer onura nabarmendu behar dugun iragarkian, balizko erosleek produktua eros dezaten.




Kontua ez da hamaika abantail ematea, aurrean dugun giza-taldea benetan erakarriko duena ondo nabarmentzea baizik.

Fagorren labe on batek eskaintzen dituen abantail edo onura guztietatik, zein da nabarmendu behar dena?... Zer da garrantzitsuago labeak janaria pisatu egiten duela eta behar duen denbora eta tenperaturan sukaldatu, ala bere kaxa garbitzen dela?

Jendeak autoa gutxiago erabili dezan, zer esan behar diegu? Horrela ingurumena zainduko dutela? Edo autoa gutxiago erabilita, dirua aurreztuko duzula eta gainera, ataskoak saihestuko dituzula?


Aldamenean dugun lankide edo laguna zerk hurbilduko luke euskara ikasi edo gehiago




<p>erabiltzera? Eta seduzitu nahi dugun herritarra?</p> <p>-Zer lortzeko egingo du aurrean dugun pertsonak euskara bereganatzeko ahalegina?</p> <p>Izan daiteke bertakoago sentitzeko. Espainiarrengandik bereizteko.</p>	
<p>Norbera kulturalki aberasteko.</p>	
<p>Hizkuntzak duen balio emozionala seme-alabei emateko.</p> <p>Seme-alabekin euskaraz hitz egiteko.</p>	
<p>Lagun edo lankide euskaldunekin beste harreman mota estuago bat lortzeko.</p>	



<p>Mundu globalizatu honetan berezi sentitzeko.</p>	<p>Bertakoago sentitzeko.      Norbera kulturalki aberasteko.      Seme-alabekin euskaraz hitz egiteko.      Euskal munduan integratuta sentitzeko.      Mundu globalizatu honetan berezi sentitzeko.</p>
<p>Euskarazko produktuak gozatzeko.</p>	<p>Bertakoago sentitzeko.      Norbera kulturalki aberasteko.      Seme-alabekin euskaraz hitz egiteko.      Euskal munduan integratuta sentitzeko.      Mundu globalizatu honetan berezi sentitzeko.      Euskarazko produktuak gozatzeko.</p>
<p>Titulu bat edo lanpostu bat lortzeko.</p>	<p>Bertakoago sentitzeko.      Norbera kulturalki aberasteko.      Seme-alabekin euskaraz hitz egiteko.      Euskal munduan integratuta sentitzeko.      Mundu globalizatu honetan berezi sentitzeko.      Euskarazko produktuak gozatzeko.      Tituluren bat edo lanpostu bat lortzeko.</p>
<p>Enpresaren irudi ona emateko.      Lankideekin ondo geratzeko      ...</p> <p>Eta <u>zabala da euskararen unibertsoa</u>. Mundu asko daude euskararenean. Batzuek estimatuko lukete Benito Lertxundiren letrak ulertzea. Beste batzuk surflari onak euskaraz normal-normal hitz egiten ikusita sentitzen dira erakarrita. Beste batzuk euskaraz bizi den kuadrilla bat estimatuta.</p>	<p>Bertakoago sentitzeko.      Norbera kulturalki aberasteko.      Seme-alabekin euskaraz hitz egiteko.      Euskal munduan integratuta sentitzeko.      Mundu globalizatu honetan berezi sentitzeko.      Euskarazko produktuak gozatzeko.      Tituluren bat edo lanpostu bat lortzeko.      Enpresa(re)n irudi ona emateko.      ...</p>

<p>3) Eta gaur hemen jarri nahi nukeen <b>hirugarren hazia</b>, garrantzitsuen da nire ustez euskararen kasuan.</p> <p>Ez dakit jendeak badakien zeintzuk diren euskarak eskain ditzakeen etekinak, baina argi daukat lortu behar dugula jendeak sinetsi dezala lorgarriak, eskuragarriak, benetakoak, uste duena baino handiagoak direla etekin horiek.</p>	
<p><u>Zergatik sinisten du jendeak Kaiku esnea kalitate oso onekoa dela?</u> Baserrian esnea jasotzen dutenetik, fabrikan prozesatzen duten arte 6 ordu bakarrik pasatzen direlako. Eta Europar Batasunak eskatzen dituen kontrolen bikoitza pasatzen dituelako Kaiku esneak. Eta hori esan egin genuelako. Kaiku esnea kalitatekoa dela esanda, hori bakarrik esanda, ez genuke sinisgarritasuna lortuko.</p> <p>Ezer gutxirako balio du euskara frexkoa, modernoa, gozagarria dela behin eta berriz esateak, gero errealitatean promesa horri eusten dioten produktuak ez badauzkagu.</p> <p>Ez da nahikoa "hau irabaziko duzu" esanda. Jendeak sentitu egin behar du irabazia.</p> <p><u>Euskara bera baino gehiago, euskarazko une, gune eta produktu erakargarriak</u> dira eskaini behar dizkiegunak.</p> <p>Euskara gora eta euskara behera ibili beharrean, gustuko dituzten edukiak, istorioak, esperientziak eman behar dizkiegu, euskaraz. Diskoak, liburuak, filmak, elkarrizketak,...</p>	 <p>Euskara bera baino gehiago, euskarazko une, gune eta produktu erakargarriak eskaini.</p>
<p><u>Ahalegin erantsia egin behar duenari balio erantsia</u> eskaini behar diogu. Ez dago beste erremediorik. Zein da erakarri nahi dugun horrek estimatuko lukeen balio erantsia?</p>	 <p>Ahalegin erantsia egin behar duenari, balio erantsia eskaini behar.</p>

	 <p>— “Zirena izateko poza”</p>
	 <p>— “Zirena izateko poza” — “Konfiantza”</p>
Euskara jakiteko inbidiaz utzi behar ditugu.	 <p>— “Zirena izateko poza” — “Konfiantza” — “Bizinahia”</p>
<p><u>Erraza da esaten. Zaila egiten.</u> Beti esaten dut komunikazioan erraza dela teoria, baina oso zaila haren aplikazio eraginkorra kasuan kasu.</p> <p>Ezin ukatu daiteke, ordea, polita ere badenik erronka. Ezta?</p>	

Bueno, bota ditut hiru haziak. Utzidazue, ordea, **gauzatxo pare bat** esaten bukatu aurretik:

Kontua ez da esan dugun hori nola edo hala egitea, oso ondo egitea baizik... Eta horretarako, gure barruan dago indarra.

Egunero-egunero lanera, gure aurreneko zitara bezala joaten lortu behar dugu... ;-) Iratzargailuak jo baino lehen, gogoz eta alai jaiki; txukun jantzi; autoan argudioak pentsatzen eta esaldiak prestatzen joan; eta benga, seduzitzera.

Bizinahi horrekin, bizipozarekin egin behar dugu lan egunero.

“Euskal Herria elebiduna edo eleaskoduna izango da nahitaez. (...) Ahalegindu behar dugu euskarak izan dezan lekua, izan dadin zernahitarako erabilgarria, euskaraz bizitzea gauza atsegina izan dadin...”

Joseba Sarrionandia.

**Jon Sarasuak** Jose Mari Sanchez Carrión Txepetxekin argitaratu zuen elkarrizketa liburuan, Txepetxek iraun duten hizkuntza komunitateak zergatik iraun duten azaltzeko bi arrazoi ematen ditu: “zirena izateko poza” zutela, batetik; eta bestetik, konfiantza ere bazutela: norbera izatea norberarentzat eta denentzat baliagarria dela.

Jon Sarasua zeharo bat zetorren horrekin. Bi giltzarri aipatzen ditu berak liburuan: “Garenaren pozetik abiatzea”, hau da, poza berriz ere. Eta bizinahia.

Hau da, azken batean: garena izateko poza; konfiantza baliagarriak garela; eta bizinahia... **Dohain horiek ez al dira ba hain justu bide nagusiaren bazterrean hazten diren loreek dituztenak? ...**

**Amaitzeko, Joseba Sarrionandiaren aipu bat** ekarri nahi nuke hona. Horrela utzi digu idatzita idazle erbesteratuak: “Euskal Herria elebiduna edo eleaskoduna izango da nahitaez. (...) Ahalegindu behar dugu euskarak izan dezan lekua, izan dadin zernahitarako erabilgarria, euskaraz bizitzea gauza **atsegina** izan dadin...”.

Gustatzen zait helburua: euskaraz bizitzea izan dadila gauza atsegina.

Euskara nola saldu udaletik

Hugo Fernández Delgado **DU IS**

Konbentzituta nago, euskaraz bizitzea gauza atsegina izan dadin ahalegintzen baldin bagara:

1 hobeto pasako dugula lanean.

2 ederragoa izango dela egun bakoitza.  
eta 3, zoriontsuago biziko garela guztiak seguru asko.

**Izan zoriontsu, izan zoriontsu egunero,  
euskaraz bizitzen eta euskara saltzen.**